**EUSKADIKO HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA**
**AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA**

**ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE EUSKADI**
**JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA**

AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2009KO OTSAILAREN 5EAN EGINDAKO BILERAN HARTU ZITUEN ERABAKIAK

ACUERDOS ADOPTADOS POR LA JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA EN SU REUNIÓN DE 5 DE FEBRERO DE 2009

Gasteizen, 2009ko otsailaren 5ean, 17:00etan, bilkura hasi du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak. Fernando Luis Ruiz Piñeiro lehendakaritzapean, lehendakariorde Florentino Eguaras Mendiri jauna, José Antonio Alberdi Larizgoitia jauna, Modesto Iruretagoyena Iturri jauna, Emilio Palomo Balda jauna, Jon Larrinaga Zulueta jauna, Miguel Alonso Belza jauna, Silvia García Baglietto andrea eta José Ramón Bengoetxea Caballero jauna bildu dira. Bileran izan dira, halaber, Eduardo Mancisidor Artaraz jauna, batzordearen idazkaria, Itziar Liceaga Romero andrea, Administrazioko ordezkaria, Agustín Peña Irala jauna, Hautesle Erroldaren Bulegoko ordezkaria, eta Andoni Iturbe Mach jauna, legelaria.

En Vitoria-Gasteiz, siendo las 17:00 horas del día 5 de febrero de 2009, se reúne la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma bajo la presidencia del Excmo. Sr. D. Fernando Luis Ruiz Piñeiro y con la asistencia del vicepresidente, Ilmo. Sr. D. Florentino Eguaras Mendiri, del Ilmo. Sr. D. José Antonio Alberdi Larizgoitia, Ilmo. Sr. D. Modesto Iruretagoyena Iturri, Ilmo. Sr. D. Emilio Palomo Balda, D. Jon Larrinaga Zulueta, D. Miguel Alonso Belza, D.ª Silvia García Baglietto y D. José Ramón Bengoetxea Caballero. Asisten también el secretario de la Junta, D. Eduardo Mancisidor Artaraz, la delegada de la Administración, D.ª Itziar Liceaga Romero, el representante de la Oficina del Censo Electoral, D. Agustín Peña Irala, y el letrado D. Andoni Iturbe Mach.

Bilkurari hasiera emanda, 2009ko urtarrilaren 29an egindako bileraren akta onetsi da.

Abierta la sesión, se aprueba el acta de la reunión celebrada el día 29 de enero de 2009.

Ondoren, jasotako idazkiei dagokienez, batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

A continuación, en relación con los escritos recibidos, la Junta adopta los siguientes acuerdos:

1.- Idazkia
Hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatzen du (507)
Nork: Aralar, administratzaile orokorra

1.- Escrito
Solicita adelanto de la subvención electoral (507)
Origen: Aralar, administrador general

*Gai hau tramitatu da.*

*Este asunto ha sido tramitado.*

2.- Erabakia
Azalpenak, 1/2009 Jarraibidearen indarraldiari buruz eta jarraibide horrek Hauteskunde Batzorde Zentralaren jurisprudentzian duen eraginari buruz, eta, horiekin batera, azalpen bat, jatorrizko herrialdeak emandako nortasun-agiriaren baliozkotasunari buruz eta NANaren edo pasaportearen fotokopia edo naziotasun-ziurtagiria sartzen ez duten atzerriko hautesleen botoaren baliozkotasunari buruz (508)
Nork: Hauteskunde Batzorde Zentrala

*Erabakia lurralde historikoko hauteskunde-batzordeetara igorri da.*

2.- Acuerdo
Aclaraciones sobre la vigencia de la Instrucción 1/2009 y sobre su repercusión en la doctrina de la JEC, junto con aclaración sobre validez del documento de identificación del país de origen y sobre validez del voto de los residentes ausentes que no incluyan fotocopia de DNI o pasaporte o certificación de nacionalidad (508)
Origen: Junta Electoral Central

*La resolución ha sido remitida a las juntas electorales de territorio histórico.*

3.- Idazkia
Irrati eta Telebistako Lantalderako ordezkari titularra eta ordezkoa izendatzen ditu (509)
Nork: Aralar, ordezkari orokorra

*Batzordea jakitun geratu da.*

3.- Escrito
Designa representante titular y suplente en el Comité de Radio y Televisión (509)
Origen: Aralar, representante general

*La Junta toma conocimiento.*

4.- Idazkia
Hautagai-zerrendetako hutsak zuzentzeko epea bi egun luzatzeko eskatzen du (510)
Nork: Eusko Alkartasuna, ordezkari orokorra

*Idazkariak jakinarazi du beharrezko dokumentazioa ezarritako epean aurkeztu zuela hautagai-zerrenda horrek, hala egiaztatu baitzen dagozkion lurralde historikoetako batzordeekin izandako harremanetan.*

4.- Escrito
Solicita ampliación del plazo de subsanación de candidaturas en dos días (510)
Origen: Eusko Alkartasuna, representante general

*El secretario informa de que la candidatura en cuestión aportó la documentación que precisaba dentro del plazo establecido, según se comprobó al ponerse en contacto con las juntas de los territorios históricos correspondientes.*

5.- Idazkia
Irrati eta Telebistako Lantaldean Eusko

5.- Escrito
Designa al representante de Eusko

Alkartasunari dagokion ordezkaria izendatzen du (511)
Nork: Eusko Alkartasuna, ordezkari orokorra

*Batzordea jakitun geratu da.*

Alkartasuna en el Comité de Radio y Televisión (511)
Origen: Eusko Alkartasuna, representante general

*La Junta toma conocimiento.*

6.- Idazkia
Irrati eta Telebistako Lantaldean Ezker Batua-Berdeak-i dagokion ordezkaria izendatzen du (512)
Nork: Ezker Batua Berdeak, ordezkari orokorra

*Batzordea jakitun geratu da.*

6.- Escrito
Designa representante de Ezker Batua-Berdeak en el Comité de Radio y Televisión (512)
Origen: Ezker Batua Berdeak, representante general

*La Junta toma conocimiento.*

7.- Idazkia
Kontsulta, hautaezintasun / bateraezintasun arloko kasu zehatz bati buruz (513)

Nork: Euzko Alderdi Jeltzalea, ordezkari orokorra

*Batzordeak uste du Gipuzkoako Kutxako zuzendaritza-organoetako kide-kargua aurreikusita dagoela Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 6.e) artikuluan.*

7.- Escrito
Consulta sobre supuesto concreto en materia de inelegibilidad / incompatibilidad (513)
Origen: Partido Nacionalista Vasco, representante general

*La Junta considera que el cargo de miembro de los órganos de dirección de la Kutxa de Gipuzkoa es un supuesto contemplado en el artículo 6.e) de la LEPV*

8.- Idazkia
POSI Partido Obrero Socialista Internacionalistaren hautagai-zerrendaren agirien kopia bidaltzen da (514)
Nork: Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

*Batzordea jakitun geratu da.*

8.- Escrito
Se remite copia de la documentación de la candidatura del Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) (514)
Origen: Junta Electoral del TH de Araba

*La Junta toma conocimiento.*

9.- Idazkia
Berariazko baimena eskatzen du UPyD alderdiaren logotipoaz errotulatutako autobusak hauteskunde-kanpainaurrean erabiltzeko (515)

9.- Escrito
Solicita autorización expresa para la utilización de autobuses rotulados con el logotipo del partido UPyD durante la precampaña electoral (515)

Nork: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), ordezkari orokorra

*Batzordeak uste du jarduera hori ez dagoela baimen-araubide baten menpe.*

Origen: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), representante general

*La Junta considera que la actividad de la que se trata no está sometida a régimen de autorización.*

10.- Idazkia

Kexa aurkezten du Partido Popularrak sartutako iragarki laburren aurka, eta dagokion espedientea irekitzeko eskatzen du (516)

Nork :Unión, Progreso y Democracia (UPyD)

*Batzordeak ezin du iritzirik eman kexari buruz, iritzi bat eratzeko behar beste elementurik eman ez delako.*

10.- Escrito

Presenta queja contra la inserción de cuñas publicitarias por parte del Partido Popular y solicita se proceda a incoar el correspondiente procedimiento sancionador (516)

Origen: Unión, Progreso y Democracia (UPyD)

*La Junta no puede pronunciarse sobre la queja por no haberse aportado los elementos necesarios para formular un juicio.*

11.- Idazkia

Irrati eta Telebistako Lantalderako ordezkari titularra eta ordezkoa izendatzen ditu (517)

Nork: Partido Popular, ordezkari orokora

*Batzordea jakitun geratu da.*

11.- Escrito

Designa representante titular y suplente en el Comite de Radio y Televisión (517)

Origen: Partido Popular, representante general

*La Junta toma conocimiento.*

12.- Idazkia

EITBko hedabideen proposamena, Administrazio Kontseiluak onetsia, 2009ko martxoaren 1eko haustenkudeetarako hauteskunde-propagandako eta segimenduko espazioak alderdien esku ipintzeko (518)

Nork: Euskal Irrati Telebista

*Batzordeak erabaki du proposamena Irrati eta Telebistako Lantaldeari helaraztea.*

12.- Escrito

Propuesta de los medios de comunicación de EITB, aprobada por el Consejo de Administración, para la puesta a disposición de los partidos de los espacios de propaganda electoral y seguimiento para las próximas elecciones de 1 de marzo de 2009 (518)

Origen: Euskal Irrati Telebista

*La Junta acuerda trasladar la propuesta al Comité de Radio y Televisión.*

13.- Idazkia
Jakinarazten du Banco Popular Español SAk 1.500.000 euroko hauteskunde-kreditu bat eman diola Partido Popularri (519)

Nork: Partido Popular, administrazaile orokorra

*Batzordea jakitun geratu da eta Jaurlaritzari bidaltzea erabaki du.*

13.- Escrito
Comunica la concesión de un crédito electoral al Partido Popular, por importe de 1.500.000 euros, por parte del Banco Popular Español SA (519)
Origen: Partido Popular, administrador general

*La Junta toma conocimiento y acuerda remitirlo al Gobierno.*

14.- Idazkia
Hauteskunde-propagandako doako tarteak eskatzen ditu hedabide publikoetan, telebistetan nahiz irratietan (520)

Nork: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), ordezkari orokorra

*Dagokion erabakia hartu eta gero helaraziko du Batzordeak eskatutako informazioa.*

14.- Escrito
Solicita los espacios gratuitos de propaganda electoral en los medios de comunicación públicos, emisoras de televisión y de radio (520)
Origen: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), representante general

*La Junta trasladará la información solicitada cuando adopte el acuerdo oportuno.*

15.- Idazkia
Jakinarazten du hauteskundeetarako kreditu-poliza bat eman zaiela (521)
Nork: Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, administrazaile orokorra

*Batzordea jakitun geratu da eta Jaurlaritzari bidaltzea erabaki du.*

15.- Escrito
Comunica la concesión de una póliza de crédito electoral (521)
Origen: Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, administrador general

*La Junta toma conocimiento y acuerda remitirlo al Gobierno.*

16.- Idazkia
Hauteskunde-spoten emanaldiak, nola TVEkoak hala RNEkoak, banatzeko proposamena eransten du (522)

Nork: Corporación RTVE, Harreman Instituzionaletarako zuzendaria

*Batzordeak erabaki du proposamena Irrati eta Telebistako Lantaldeari helaraztea.*

16.- Escrito
Adjunta propuesta de distribución de espacios para la emisión de spots electorales, tanto en TVE como en RNE (522)
Origen: Corporación RTVE, director de Relaciones Institucionales

*La Junta acuerda trasladar la propuesta al Comité de Radio y Televisión.*

17.- Idazkia
Irrati eta Telebistako Lantaldeari eskatzen dio Berdeak-Los Verdes-i dagozkion iragarki-tarteek 30 segunduko iraupena izan dezatela (523)
Nork: Berdeak-Los Verdes

*Batzordeak erabaki du proposamena Irrati eta Telebistako Lantaldeari helaraztea.*

Irrati eta Telebistako Lantaldea, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 82.2 artikuluan aurreikusita dagoena, ondoko pertsona hauek osatzen dute:

Jon Miraballes Barrenetxea jauna, Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco-ren ordezkari gisa
(ordezkoa: Luis M.ª Prego Axpe jauna)

Juan Carlos Balbas Núñez jauna, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerraren ordezkari gisa
(ordezkoa: Aranzazu Cano Copa andrea)

Laura Garrido Knörr andrea, Partido Popular-en ordezkari gisa
(ordezkoa: José Luis López García jauna)

Mikel Irujo Amezaga jauna, Eusko Alkartasunaren ordezkari gisa.

Ascensión Matarranz Cueva andrea, Ezker Batua-Berdeak-en ordezkari gisa.

Iñigo Olabarri Aldape jauna, Aralarren ordezkari gisa
(ordezkoa: Asier Iturriagaetxebarria Royo jauna)

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 83. artikuluan ezarritako

17.- Escrito
Solicita al Comite de Radio y Televisión que los espacios promocionales de Berdeak-Los Verdes sean de una duración de 30 segundos (523)
Origen: Berdeak-Los Verdes

*La Junta acuerda trasladar el escrito al Comité de Radio y Televisión.*

El Comité de Radio y Televisión, previsto en el artículo 82.2 de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, queda integrado por las siguientes personas:

D. Jon Miraballes Barrenetxea en representación de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco
(suplente: D. Luis M.ª Prego Axpe)

D. Juan Carlos Balbas Núñez en representación del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra
(suplente: D.ª Aranzazu Cano Copa)

D.ª Laura Garrido Knörr en representación del Partido Popular
(suplente: D. José Luis López García)

D. Mikel Irujo Amezaga en representación de Eusko Alkartasuna.

D.ª Ascensión Matarranz Cueva en representación de Ezker Batua-Berdeak.

D. Iñigo Olabarri Aldape en representación de Aralar
(suplente: D. Asier Iturriagaetxebarria Royo)

De acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 83 de la Ley de Elecciones al

irizpideei jarraituz, hautagai-zerrendei hauteskundeetarako dagozkien propagandako doako tarteen osoko banaketa onetsi da:

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco .............................. 30 minutu

Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra ............................ 30 minutu

Partido Popular ................ 20 minutu

Eusko Alkartasuna ............ 20 minutu

Ezker Batua-Berdeak ......... 20 minutu

Aralar ............................. 10 minutu

Partido Por un Mundo Más Justo (PUM+J) ....................... 10 minutu

Unión Progreso y Democracia (UPyD) ........................... 10 minutu

D3M ............................. 10 minutu

Askatasuna .................... 10 minutu

Berdeak-Los Verdes ......... 10 minutu

Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) ........................... 10 minutu
(Bizkaiko eta Arabako lurralde-eremutik harago hedatzen ez diren eta programazioa zabaltzen ez duten komunikabideetan)

Partido Carlista de Euskalerria-Euskal Herriko Alderdi Karlista... 10 minutu
(Bizkaiko lurralde-eremutik harago hedatzen ez diren eta programazioa zabaltzen ez duten komunikabideetan)

Partido Humanista ....... 10 minutu
(Bizkaiko lurralde-eremutik harago hedatzen

Parlamento Vasco, se aprueba la distribución global de los tiempos gratuitos de propaganda electoral correspondientes a las distintas candidaturas:

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco .............................. 30 minutos

Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra ............................ 30 minutos

Partido Popular ................ 20 minutos

Eusko Alkartasuna ............ 20 minutos

Ezker Batua-Berdeak ......... 20 minutos

Aralar ............................. 10 minutos

Partido Por un Mundo Más Justo (PUM+J) ....................... 10 minutos

Unión Progreso y Democracia (UPyD) ........................... 10 minutos

D3M ............................. 10 minutos

Askatasuna .................... 10 minutos

Berdeak-Los Verdes ......... 10 minutos

Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) ........................... 10 minutos
(En aquellos medios cuyo ámbito territorial o el de su programación no exceda de Bizkaia y Araba)

Partido Carlista de Euskalerria-Euskal Herriko Alderdi Karlista... 10 minutos
(En aquellos medios cuyo ámbito territorial o el de su programación no exceda de Bizkaia)

Partido Humanista ....... 10 minutos
(En aquellos medios cuyo ámbito territorial o

ez diren eta programazioa zabaltzen ez duten komunikabideetan)

Partido Familia y Vida .... 10 minutu
(Bizkaiko lurralde-eremutik harago hedatzen ez diren eta programazioa zabaltzen ez duten komunikabideetan)

Zezenketen aurkako eta Animalien Aldeko Alderdia
(PACMA) ........ 10 minutu
(Bizkaiko lurralde-eremutik harago hedatzen ez diren eta programazioa zabaltzen ez duten komunikabideetan)

Irrati eta Telebistako Lantaldea biltzeko deia egiten da, biharko, otsailak 6, 10:30ean.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaiera eman zaio bilkurari 18:21ean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 5a

el de su programación no exceda de Bizkaia)

Partido Familia y Vida .... 10 minutos
(En aquellos medios cuyo ámbito territorial o el de su programación no exceda de Bizkaia)

Partido Antitaurino Contra el Maltrato Animal
(PACMA) ....................... 10 minutos
(En aquellos medios cuyo ámbito territorial o el de su programación no exceda de Bizkaia)

Se convoca el Comité de Radio y Televisión mañana, día 6 de febrero, a las 10:30 horas.

Sin más asuntos que tratar, y siendo las 18:21, se levanta la sesión.

Vitoria-Gasteiz, 5 de febrero de 2009